

Zamudio, Olaberria eta Zierbena dira biztanleko BPG altuena izan duten Euskal AEko udalerriak

Eskualdeka, aldiz, Arabako Errioxa, Gorbeialdea eta Arabako Ibarrek dira biztanleko BPG altuena izan dutenak

EUSTATEk argitaratutako datuen arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoen Zamudio udalerriak izan du Euskal AE biztanleko Barne Produktu Gordin altuena: Euskal AEko 100 erreferentzia-balioarekin alderatuta 975eko indizea izan du. Haren atzetik daude, bigarren eta hirugarren postuan hurrenez hurren, Olaberria (906) eta Zierbena (876) udalerriak; lehena Gipuzkoan dago eta bigarrena Bizkaian.

Arabaren Legutio (573) udalerriak izan du biztanleko BPG altuena, autonomia erkidegoko udalerri guztien artean laugarren postua lortuz.

BPG sektoreen arabera honela banatu da: Zamudio zerbitzuen sektoreak (% 49,2) izan du BPG altuena eta gero industri sektoreak (% 47,1); bi sektore hauek Teknologi Parkeko enpresa-jarduerari lotuta daude. Biztanleko BPG altuena izan duten hiru udalerrietan ematen da ezaugarri bera: lehen sektoreak garrantzi eskasa duela. Zamudio udalerrian eman den egituraz bestelakoak dira Olaberria eta Zierbena udalerrienak; hauetan industri sektorea garrantzitsua da (% 85 ingurukoa) baina zerbitzuen sektorea % 15,6 izan da Olaberrian eta % 9,1 Zierbenan.

1. taula. Biztanleko BPG altuena (eurotan) izan duten udalerriak eta horien banaketa 4 sektoretan (%). 2008

	BIZTANLEKO BPGa			SEKTOREKAKO BANAKETA (%)			
	LURRALDE EREMUA	Biztanlek o BPGa	INDIZEA (1)	LEHENA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
	Euskal AE	31.514	100	0,7	27,9	9,2	62,2
	Araba	36.223	115	1,3	34,5	8,1	56,0
	Bizkaia	29.971	95	0,6	23,0	10,6	65,8
	Gipuzkoa	31.951	101	0,6	32,0	7,6	59,8
1	Zamudio	307.333	975	0,1	47,1	3,6	49,2
2	Olaberria	285.377	906	0,2	82,6	1,6	15,6
3	Zierbena	276.186	876	0,3	85,4	5,2	9,1
4	Legutio	180.423	573	0,6	72,3	2,5	24,6
5	Loiu	179.325	569	0,2	24,1	7,7	67,9
6	Aduna	172.292	547	0,5	54,5	4,7	40,2
7	Izurtza	151.681	481	0,3	72,3	2,6	24,8
8	Ajangiz	126.176	400	1,1	86,7	1,1	11,0
9	Berantevilla	113.476	360	3,9	80,0	3,0	13,1
10	Laguardia	111.055	352	11,4	53,7	3,2	31,7

(1) Kokalekua, Euskal AEren balioarekin alderatuta (=100)

Iturria: EUSTAT. Kontu ekonomikoak. Udal BPG.

Eskualdeka, Arabako Lurralde Historikoan daude biztanleko BPG altuenak izan dituzten hiru eskualdeak. Horietako lehen eskualdea Arabako Errioxa izan da, 188 indizearekin; eskualde honetan ardogintzaren industriak portaera ona izan du eta biztanle dentsitatea txikia da. Laguardia (352) eta Eskuernaga (231) udalerriak dira eskualde horretako emaitza onenak izan dituzten udalerriak.

Gorbeialdea (181) eta Arabako Ibarrek (162) izan dira bigarren eta hirugarren postuetan dauden eskualdeak. Laugarren eta bosgarren postuetan, hurrenez hurren, Gipuzkoako Deba Garaia (132) eta Bizkaiko Durangaldea (122) eskualdeak izan dira.

Dena den azpimarratu behar da eskualde horietan guztietan industri sektorearen balio erantsi osoak portzentaje altua izan duela, % 55 ingurukoa, eta Euskal AEkoa % 27,9 izan dela. Bestalde, zerbitzuen sektoreak garrantzi eskasagoa izan du: % 35 ingurukoa eta Euskal AEn % 62,2.

1996 eta 2008 urteen artean biztanleko BPGk izan duen bilakaerari dagokionez, Zierbena (Bizkaia) eta Arama (Gipuzkoa) udalerrietan hazi da gehien biztanleko BPG; batez beste urtean % 32,1 eta % 22,2ko hazkunde pilatuak izan dituzte hurrenez hurren.

Baina hurrengo udalerrietan ere aipatzeko moduko hazkundeak izan dira: Bizkaian Derion (% 14,6), Araban Bernedon (% 14,2) eta Gipuzkoan Olaberrian (% 14,2).

2. taula. Biztanleko BPGaren hazkunde handienak izan dituzten udalerriak (eurotan). 1996-2008

	LURRALDE EREMUA	Biztanleko BPGa		Δ% 08/96	Urteko batez besteko hazkunde pilatua (%)
		1996	2008		
	Euskal AE	14.573	31.514	116,3	6,6
	Araba	17.592	36.223	105,9	6,2
	Bizkaia	13.456	29.971	122,7	6,9
	Gipuzkoa	15.195	31.951	110,3	6,4
1	Zierbena	9.766	276.186	2.728,0	32,1
2	Arama	6.067	67.087	1.005,9	22,2
3	Derio	18.953	96.755	410,5	14,6
4	Bernedo	15.432	76.052	392,8	14,2
5	Olaberria	58.030	285.377	391,8	14,2
6	Zestoa	12.732	59.527	367,5	13,7
7	Mañaria	21.805	95.369	337,4	13,1
8	Berantevilla	26.120	113.476	334,4	13,0
9	Fruiz	6.501	25.179	287,3	11,9
10	Asteasu	21.126	80.876	282,8	11,8

Iturria: EUSTAT. Kontu ekonomikoak. Udal BPG.

Produktibitatearen ikuspegitik, eta Euskal AEko landun bakoitzeko BPG hartuta neurri gisa (hau da, biztanleak zenbatu beharrean udalerri bakoitzeko landun kopurua kontuan hartuta) udalerri hauek nabarmendu behar dira: lehenengoa Bizkaiko Zierbena (581), bigarrena Gipuzkoako Olaberria (251), hirugarrena Arabako Zanzbrana (245) eta laugarrena Bizkaiko Fruiz (210).

3. taula. Landun bakoitzeko BPG altuena izan duten udalerriak (eurotan). 2008

	LURRALDE EREMUA	LANDUNEKO BPGa	INDIZEA (1)
	Euskal AE	66.713	100
	Álava	69.269	104
	Bizkaia	66.006	99
	Gipuzkoa	66.571	100
1	Zierbena	387.866	581
2	Olaberria	167.527	251
3	Zambrana	163.397	245
4	Fruiz	140.185	210
5	Mañaria	140.020	210
6	Bakio	124.271	186
7	Areatza	115.009	172
8	Irura	113.293	170
9	Arantzazu	112.141	168
10	Lemoiz	110.977	166

(1) Kokalekua, Euskal AEren balioarekin alderatuta (=100)

Iturria: EUSTAT. Kontu ekonomikoak. Udal BPG.

Lurraldeak eta eskualdeak aztertuta, Goierri (Gipuzkoa) eta Kantauri Arabarra dira landun bakoitzeko BPG altuena izan duten eskualdeak, 119 indizearekin; eta Arabako Errioxa hirugarren postuan geratu da 116 indizearekin. Bizkaiko Lurralde Historikoan Durangaldeak izan du landun bakoitzeko BPG altuena: 107 indizea.

Eta hiru hiriburuak aztertzean hurrengo datuak atera dira: Bilbon eta Donostian BPGaren % 85etik gora zerbitzuen sektoreak sortu du; baina Gasteizen portzentaje hori % 64 ingurukoa izan da. Ildo horretan, industri sektoreak ekarpen handiagoa egin du Gasteizen (% 26,7) Bilbon (% 6,5) eta Donostian (% 6,8) baino.

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Jose Javier Aramburu

Tel.: +34-945-01 75 80 Faxe: +34-945-01 75 01.

Kontu Ekonomikoari buruzko prentsa-ohar gehiago – Euskal AEko Udal BPG

Kontu Ekonomikoari buruzko datu-bankua – Euskal AEko Udal BPG